

Xabier Etxaniz Erle

EHUKO IRAKASLEA

Hiria desegiten

Duela urte batzuk Eusko Jaurlaritzak karpaina bat jarri zuen martxan denda txikien —edo betiko denden— alde. Denda txikiek auzoa, kalea, bizirik mantentzen laguntzen zutela zioen iragarkiak.

Harrez gero arreta handiagoz jarraitu dut denda txikien eboluzioa ni bizi naizen hirian, Gasteizen, eta ikusi ahal izan dut kaleak eta auzoak hiltzen ari direla eten gabe. Baina egoera horren arduradunak, edo errudunak —bakoitzak nahi duen bezala irakur dezala— ez dira hiritarrak bakarrik, edo gure bizimoduaren aldaketagatik izan soilik; arduradun politikoez asko dute esateko eta beren jokabidearen ondorio nahiko zuzena da gaur egun bizi dugun egoera.

Gasteizen 1960ko hamarkadaz geroztik hiria eten gabe zabaldu da. Lehenengo bi hamarkadatan nahiko bat-batean, immigrazioaren ondorioz, Gasteizen inguruko industrializazioaren ondorioz; geroago, berriz, moteldu egin zen hazkunde eta 90eko hamarkadan Lakua auzoa egiteari ekin zitzaion. Ehun mila pertsona hartuko zituen auzo berria zen 60.000tik 200.000 biztanletara pasa zen hirian. Lakuak, baina, ez du lagundu Gasteizko populazioa handitzen, barneko jende mugimenduari erantzun dio



ALEX LARRETXI

neurri handi batean, eta gaur egun Gasteizen 230.000 biztanle bizi gara.

Kontua da Lakuaz gain beste bi auzo erraldoi eraiki direla hirian azken bost-hamar urteotan, Salburua eta Zabalzana. Milaka etxebizitza... populazioa handiturik ikusi ez duen hiri batean. Honek, jakina dispertsio ikaragarria ekarri du, auzo berri batzuetan jende gutxi bizi da —eta ez dute zerbitzurik— eta auzo zaharretan gero eta “zulo” gehiago daude: dendak itxirik eta etxebizitzak hutsik.

Eta honek guztiak zenbait galdera sorrarazten dizkit: zenbatean handitu da udalaren gastua hirian? Zenbat gizarte-etxe berri egin behar dira, zenbat farola gehiago jarri, zenbat anbulategi, eskola, haurtzaindegi... populazioan igo ez den hiri batean? Dispertsio honek kalitate handiagoa ekarri al die Gasteizko biztanleei? Zer nolako eragina du hirian, hirigintzan, garraio behar berriak? Etxebizitza unifamiliarren politika horrek nora garamatza? Eta, batez ere, nork ordaindu beharko du honegatik? Irabazi, argi eta garbi dagoelako eraikin enpresek irabazi dutelako horrekin, baina susmoa dut ordaindu, denok ordaindu beharko dugula —eta ez dirutan, preseski— hiri desegite hori. ■

« Irabazi, argi eta garbi dago eraikin enpresek irabazi dutela, baina susmoa dut ordaindu, denok ordaindu beharko dugula hiri desegite hori »

TXANDAN

Joxerra Garzia



Izan zitekeen, baina ez da, nik dakidala behintzat, banketxe edo aurrezki kutxa berri bat, ezta saskibaloiko talderen baten esponsor berria ere.

Alderdi politiko berri bat ere ez da, baina bai alderdi politiko guztiek, diren kolorekoak direlarik ere, agintera iritsi orduko deskubritzen bide duten orotariko errezeta miragarria: debeka, debeka eta debeka!

Liluratuta ikusten ditut nik agintedunak jostailu berriarekin, eta, alde behintzat, ulertzekoa ere bada: merkea da oso, erabil erraza, eta luzimendu handikoa. Arazoa bere horretan geratzen da, jakina, baina alde ederreko itxura hartzen du, eta hori da axola duena. Horixe

DBK

egin ziguten tabakoaren legearekin, eta horixe egin nahi digute orain bizikletarekin ere.

Donostiako alkateak harro arraio aldarrikatu duen bezala, espaloian dabilzan txirrindulariei isuna jartzeko eskatuko die udaltzainei.

Kontua da, alkate jauna, horrelako neurriekin aurki lurpean —edo hegan— ibiltzen hasi beharko dugula hirian bizikletaz ibiltzen aspaldi tematu ginenok. Eta, alfer-alferrik dela jakingo ez banu, honako iradokizun hau egingo nizuke: hirian behar bezala ibiltzeko moduko bidegorri sarea osatu arte behintzat utzi isunak alde batera.

Bestela nekez sinetsiko dizut nik benetan nahi duzunik jendea hirian bizikletaz ibil dadin. ■